



## laz baino hamar eragile gehiagok lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria

TOLOSA ▶

Aldaketa  
klimatiko  
aztergai,  
Naturaldia  
ekitaldietan

**TOLOSALDEA** ▶ Guztira 66  
ziurtagiri banatu zituen atzo  
Kontseiluak Villabonako Gurean

**HAZKUNDEA** ▶ «Gero eta gehiago  
gara proiektu honetan», dio  
euskalgintzako ordezkari Maizek ▶ 5

Etzitik ostiralera  
arte izango dira  
jardunaldiak ▶ 2



## Julio Pardoren margolanak ikusgai Aranburun

**TOLOSA** ▶ Julio Pardo artista iruindarrak atzo inauguratu zuen erakusketa Aranburu jauregian. Bertan azken lau urteetan egin dituen koadroak izango dira ikusgai. Hauek figuratiboak dira eta poesiatik eta ironiatik hurbil daudela esan daiteke. ▶ 3

ALEGIA ▶

## AHTren aurkako manifestaziorako deia luzatu dute ▶ 5

ZIZURKIL ▶

## Pagamuño berritzeko 660.000 euro inbertituko dituzte

Xedeak, trafikoa berrantolatu eta traba  
arkitektonikoa ezagutu, besteak beste ▶ 4

LEITZA ▶

## Elutseder Industrialdea handitzeko obrak abian

20 hilabetetan  
amaituko dituzte ▶ 7

**BAILARAKO  
ESKAITZARIK  
ZABALENA**

**BATXILERGŌA**  
Tecnologia  
Natura eta Osasun Zientziak  
Gizarte eta Giza Zientziak

**ORIXE**  
Bigarren Hezkuntzako Institutua

943 45 13 87  
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixa.net

Aurrematrikula: Babxilergoa: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra

## NATURA ▶

## Landare eta loreak ikusgai, erakusketa berezi batean

## ERREDAKZIOA

Tolosako mintegiek Berdura Plazan lore eta landareen erakusketa berezia egingo dute, gaur, eta hurrengo hiru larunbatetan.

Azpiazu eta Etxetxo mintegiek lore eta landareen munduko azken berrikuntzak izango dituzte. Lorezaintzako eta baratzezaintzako zaleek aukera izango dute dituzten zalantzak aditu hauekin argitzeko.

Denboraldiko loreak erosi ahal izango dira: Surfiniak, pentsamenduak, txilarra, geranioak, alegria loreak, menta, erromeroa, albahaka, hortentsiak...

Aurten ere hartuko dute parte Alde Zaharra Dendakoei eta establezimenduak landare-motibo alai eta koloretsekin apainduko dituzte.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39  
▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003  
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun ebexa:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

## Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Lurrarrendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

## NATURA ▶

## Aldaketa klimatikoa ezagutzera ematen

Etzi hasi eta ostiralera arte luzatuko diren Tolosa Naturaldia jardunaldietan gai hau jorratuko dute hainbat adituk

## ESTI EZEIZA

Aldaketa klimatikoa izango da hizketagari datorren egunetan Tolosaldeko Naturaldian. Hilaren 23an hasi eta 27ra arte puntapuntako hizlariak egun bizi dugun egoeraz eta etorkizunaz hitz egingo dute Kultur Etxean.

Klima aldaketaren eztabaida, zientzialarien arteko azitate, politikak, gizarte eta ekonomia arloko eztabaida izatera igarotzen da. Hala, jardunaldi hauen helburua da, horrelako gai konplexuak jendeari hurbiltzea, seriotasunez, eta modu ulergarri batean. Izan ere, Olatz Peon Tolosaldeko alkateordeak aurkezpenean esan zuen bezala, «jasangarritasuna beharrezkoa da, baina horretarako ezinbestekoa da egoeraren analisia bat egitea eta gaia ezagutzea». Beraz, jardunaldi hauek horretarako baliagarri izango dira alkateordearen ustetan.

Shole Martin, jardunaldien koordinatzaile nagusiak atzo azaldu zuenez, joan den urteko saioak amaitzerako, garbi zeukaten antolatzaileek aldaketa klimatikoa lehenago edo beranduago jorratu behar zuten gaietako bat zela, eta azkenik, aurten egitea erabaki dute. Izan ere, Nazio Batuetako Go-



Tolosa Naturaldia jardunaldien aurkezpen ekitaldia. E. EZEIZA

## TOLOSA NATURALDIA ▶ EGITARAUA

Hilaren 27ko jardunaldia izan ezik, gainontzekoak Kultur Etxean izango dira, 20:00etan. Aipatutakoa berriz, Zerkausian egingo dute, 20:00etan.

## APRILAK 23. ASTELEHENA

'Klima aldaketa: dakiguna eta ez dakiguna'. Luis Bairon Ruiz, Espainiako meteorologoa eta fisikaria izango da hizlari. Aurkezle lanetan Javier Retegi, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria ariko da.

## APRILAK 24. ASTEARTEA

'Klima aldaketaren kausak eta ekosistemen jardunbideari dakarkion

eraginak'. Josep Peñuelas, CSICeko Ikerketako irakaslea eta Alejandro Cantero, IKT enpresako mendi ingeniaria izango dira hizlari. Ekitaldia Kiko Alvarez biologoak aurkeztuko du.

## APRILAK 25. ASTEAZKENA

'Etorkizuneko energiak: geure burua petrolioa bukatzen denerako prestatzen'. Antonio Ruiz Elvira Fisika Aplikatuako katedraduna eta Lucia Izquierdo ikertzailea izango dira hizlari. Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Ataleko burua izango da aurkezle.

bernu Arteko Erakundeko (IPCC) adituek gauzaturiko txosten batek zeresan handia piztu du mundu osoan.

## Gipuzkoara zabaldu

Tolosan izango diren saioez gain beste hiru jardunaldi ere gauzatuko dituzte. Alde batek, Zarautzen eta Arrasaten *Klima aldaketa, eta Bizkaiko itsasoari dakarkion eragina* izeneko hitzaldiak eskainiko dituzte Margarita Martin meteorologoa eta Xabier Irigoien, Azti erakundeko biologoak. Aurkezle gisa Javier Urrutia biologoa ariko da.

Bestetik, ekainaren 25ean, Chillida Lekun 1995ean Kimikako Nobel saria irabazi zuen Mario Molina biologoak *Mundua berotzen* izenburupean hitzaldi bat eskainiko du. Gainera aurten, 30 urte betetzen ditu Chillidaren Haizeen Orraziak.

## APRILAK 26. OSTEGUNA

'Klima aldaketa, eta Bizkaiko itsasoari dakarkion eragina'. Margarita Marin meteorologoa eta Adolfo Uriarte Ozeanografiako doktorea izango dira hizlari. Javier Urrutia biologoa ariko da aurkezle lanetan.

## APRILAK 27. OSTIRALA

'Tolosa Naturaldia bertsoz bertso'. Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Sustrai Colinaeta Aitor Sarriegi bertsolariak ariko dira bertsoetan aldaketa klimatikoaren inguruan. Gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu ariko da.

## HEZKUNTZA ▶

## Elikadura orekatua nola eman irakatsiz

**Erredakzioa** ▶ Aste honetan zehar Samaniego ikastetxeko lehendabiziko zikloko ikasleek elikadura osasuntsuari buruzko tailer batean parte hartu dute. Hau, Kutxak antolatuta, eta eskolan bertan izan da. Honez gain, gurasoei zuzendutako bi hitzaldi ere eman dituzte. Hizlariak, gai horretan adituak diren Ana Elbusto eta Nerea Segura mediku nutrizionistak izan ziren. Bestalde, urtero legez, datorren astean Literatur Astea ospatuko dute, eta honen baitan hainbat ekitaldi egingo dituzte. HITZA



ERAKUSKETA ▶



'Tirikitau-tau-tau'. Akrilikoa mihi se gainean. JULIO PARDO



'Altzo'. Akrilikoa mihi se gainean. JULIO PARDO



'Dribling'. Akrilikoa mihi se gainean. J. PARDO



'Baso lasaia'. Akrilikoa mihi se gainean. JULIO PARDO

# Julio Pardoren lana ikusgai, Aranburun

Atzo inauguratu zuten artista iruindarraren erakusketa; azken lau urteetan egin dituen margolanak daude ikusgai

IÑIGO TERRADILLOS

Julio Pardo iruindarraren pintura erakusketaren inaugurazioa egin zuten atzo arratsaldean Aranburu jauregian, eta ikusgai izango da 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenean izan ezik.

Julio Pardo Iruñean jaio zen, 1957an, baina aspalditik Donostian bizi da. Leioako Arte Ederretako Fakultatean ikasi zuen, eta 1990ean karrera amaitu ostean, hainbat erakusketa egin ditu Euskal Herrian barrena, taldeka nahiz bakar-

ka. Tolosako Aranburu erakusketari dagokionez, azken lau urteetan egin dituen lan batzuk ikusi ahal izango dira. Neurri askotakoak dira koardroak, eta pintura akrilikoz margotutakoak.

Margolanak figuratiboak dira, eta poesiatik eta ironiatik hurbil daudela esan daiteke, zinemak, arkitekturak eta komikiak eragina dutelarik irudietan. Erakusketa honetarako katalogo bat argitaratu dute Tolosako eta Iruñeko udalen laguntzari esker.

Aranburu jauregira ekarri

aurretik, Julio Pardoren erakusketa Iruñeko Ziuadelaan egon da iragan otsailean eta martxoan. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Balarate aretoan antolatu duen 22 pintore nafar erakusketan ere Pardoren zenbait lan ikusi daitezke.

Beste hainbat hiritan eta herrietan ere izan dira ikusgai bere lanak, Donostian, Zarautzen, Bilbon, Eibarren, Gasteizen, Madrilen, Zaragozan (Espainia), Caceresen (Espainia)... Halaber, sari eta beka ugari ere irabaziak ditu Julio Pardok.

POLITIKA ▶

## Gorostidiren omenezko ekitaldia gaur, Deban

13:00etan izango da, Zumardiko kioskoan; herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara

ERREDAKZIOA

Jokin Gorostidi zenaren omenez ekitaldia burutuko dute gaur, 13:00etan Debako Zumardiko Kioskoan. 18/98 Sumarioan epaituen taldeak eta 18/98 Debako lan taldea hartuko dute parte ekitaldian, eta horretaz gain, bertsolariak izango dira, dantzariak, eta hitzaldia ere izango da. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.

Ekitaldian Jokin Gorostidik 2005eko Gabonetan idatzirik azken hitzak eskainiko dizkie Debako 18/98 lan taldeak 18/98ko auzipetuei, ondorengoak, hain zuzen: «1970. urte-

an Burgosko prozesua 31/69 sumarisimuan 2 heriotz-zigor jaso nituen; 2005. urtean, berriaz, 18/98 Auzian. Atzo eta gaur, Espainiako estatuko gerra estrategiak bahitua. Euskal Herriak hitza eta erabakia behar du eta hori lortu arte ez gaituzte isilduko. Utzi bakean Euskal Herria. Atzo, gaur eta beti: Gora Euskal Herria askatuta!».

Debako ekitaldiaren aurretik, Tolosan iragan martxoan aurkeztu zuen Itziar Aizpuruak Jokin Gorostidi, Autobiongrafia liburua, eta ezker abertzaleak Gorostidi bizi izan zen etxean oroigarria eskaini zion.

GIZARTEA ▶

## Txirrin Txarran festa gaur eta bihar Tolosan

10-18 urte bitarteko 700 haur inguru bilduko ditu jaiak; ekitaldi ugari izango dira



Aurreko edizioetako Txirrin Txarran-en irudi bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Txirrin Txarran festaren 20. edizioa hartuko du Tolosako gaur eta bihar. Bizi Alai taldea Donostiako Elizbarrutiko astialdi taldeen federazioa da Txirrin Txarran antolatzeaz arduratzen dena, eta aurtengo edizioa berezia izango da, federazioak 25 urte betetzen baititu.

1996an egin zuten azken Txirrin Txarran Tolosan, eta aurrekoa 8 urte lehenago izan

zen. Aurtengoari dagokionez, 10-18 urte bitarteko 700 haur inguru espero dituzte festaren inguruan biltzea. Hala, honako izango da egitaraua: gaur, 17:30ean prestaketa; afari-sozialdi taldeen federazioa da Txirrin Txarran antolatzeaz arduratzen dena, eta aurtengo edizioa berezia izango da, federazioak 25 urte betetzen baititu. 1996an egin zuten azken Txirrin Txarran Tolosan, eta aurrekoa 8 urte lehenago izan

## TOLOSA ▶

## Ezker abertzalearen elkarretaratzea

Ezker abertzaleak elkarretaratzea egingo du udaletxe aurrean gaur, 12:00etan, *Prozesu eta hauteskunde demokratikoen alde* lelopean. Aurretik, batzarra egingo dute 10:00etan Kultur Etxean. Elkarretaratzea eta gero argazkia aterako dute Trianguloan.

## ADUNA ▶

## Multi-Kulti Gaua gaurkorako Asvinenean

Asvinenea arte eszenikoen laborategiak beste ekitaldi bat antolatu du gaurkorako. Multi-Kulti Gaua deitu diote ekitaldiari eta 22:30ean hasiko da. Hiru talde ariko dira: Breikers (break musika), Ehuntzango (batukada) eta Ruido Rosa (rock-and-roll).

## ANOETA ▶

## Alkartasunekoak mahai jokoen lehiazera

Anoetako Alkartasuna biltekiko kideak gaur joango dira Urrietako Dendaberri jubilatuen elkartera, eskualdeko mahai jokoen lehiaketan parte hartzera. Kanporaketan irabazten dutenek gero Goierriko eskualdeko irabazleekin lehiatu beharko dute.

## BEDAIO ▶

## Bedaio ezagutzeko ibilaldia, bihar

*Ezagutzen duzu Bedaio? Orain duzu aukera* lelopean, mendi ibilaldia antolatu dute biharko. Besteak beste, Aralar azpitik pasako dira eta Gurbilhandi Gipuzkoako baserri handienaren ondotik pasako dira. Antolatzaileek gurasoak animatu nahi dituzte haurrak Bedaioira eramateko eta ibilaldi erraz batean naturaz eta mendiaz gozatzeko. Irteera Bedaioetik izango da 10:30ean.

## ANOETA ▶

## Epea luzatu dute kartel lehiaketan parte hartzeko

Anoetako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du festa batzordeak. Lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu egin dute antolatzaileek. Orain, maiatzaren 2ra arte, 13:00ak arte, eraman daitezke lanak Anoetako udaletxera. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta herriko lehenak 100 eurokoa.

## ANOETA ▶

## Herriko festak antolatzeko bilera asteazkenean

«Festak denon gustukoak izan daitezzen», festa batzordeak herriko elkarte eta herri guztiei deitzen die asteazkenean, 19:00etan, udaletxean egingo den bilera parte hartzera. Egitarauaren azken ukituak eta herri kirolen gaia jorratuko dute. Gero, 20:00etan, txosnen kokapena aztertuko dute.

## ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA



Emakume bat haurrentzako aulki bati bultzaka Pagamuño auzora igotzen. I. GARCIA

# Udalak 660.000 euro inbertituko ditu Pagamuño berritzeko

Trafikoa berrantolatzea, traba arkitektonikoak ezabatzea eta hainbat gune oinezkoentzat eratzea dira helburuak

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak 658.307 euroko inbertsio egingo du Pagamuño auzoko berrurbanizazio lanak eginen, bertako instalakuntzak modernizatu eta auzokideen behar berrietara egokitzeko xedez. Gobernu taldeak buruturiko kudeaketak direla eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000 euro inguruko diru ekarpen handia lortu du aipatu lan horien finantzaketarako. Hain zuzen, Udalak asteartean irekiko ditu obrak egiteko lehiaketara aurkeztu diren enpresen eskaintzak.

Jarduera honen bitartez, trafikoa berrantolatzea, hainbat gune oinezkoentzako eratzea eta traba arkitektonikoak ezabatzea igogailu bat jarzteko dira, besteak beste, 3.980 me-

tro karratuko azaleran egin asmo diren hobekuntzak.

Auzoaren behe alde eta ikastetxeen gunea lotuko dituen oinezkoentzako bidea egitea izango da jardueraren ardatza. «Azpiegitura berri honek eremuko eraikinetan bizi diren irribidea hobetuko du, ikastetxera eta ikastolara doazen guraso eta seme-alaben joanetoria erraztu eta erregulatzear gain», azaldu dute Udaletik. Proiektuak 2,60 metroko zabalera duen bidea egitea aurreikusten du, 80 zentimetro zabalera soropil eta zuhaztiarekin.

Programaturiko beste jarduerak batzuei esker, prestazio hobekuntza izango dituzte aurrerantzean Pagamuño oinezkoek; izan ere, haur-jolasetara bideraturiko gune bat eratuko

dute ikastola ondoko plazan, eta beste bat erreserbatuko dute herriko bizilagun guztien gozamenerako. Zizurkilgo Udalak hesi bat ipiniko du arrisak ekiditeko mugakide gisa, eta gune horretan dagoen argiteria guztia indartuko du bertako ikuspena areagotzeko.

## Iggogailua

Azkenik, oinezkoek dagokienez, auzoaren goialdeko eta behealdeko irisgarritasun arazoak konpontzeko dituen igogailu bat instalatzea aurreikusten du proiektuak, gaur egun gune horretan mugikortasun urriko pertsonen ibilia eragozten duen aldapa sailhesteko. Euren etxeetatik ikastetxe edo ikastolara joan-etorri hori eginen duten pertsona eta familia ugari izango dira, zalantzarik gabe, kanpoko azpiegitura honen zerbitzua erabiliko dutenak.

Trafikorekin lotuta, biribilgune bat eraikitzea aurreikusten dute ibilgailuen trafikoa arautzeko eta abiadura handian ibiltzea ekiditeko. Biribilguneak egun dauden garajetarako sarbideak errespetatuko ditu, eta oinezkoek ibilgailuekiko lehentasuna ematen dieten guneak taxutuko ditu. Lehentasun horiek besteak beste, trafiko seinaleak, oinezko pasabide goratuak eta zolarri berezia ipiniko dituzte.



**PILOTA PARTIDUAK**

aspepelota.com

**Apirilak 23 • Astelehena**  
**16:30**

**Baleztena - Arizmendi**  
**Apezetxea - Urberuaga**

II III III III

**TITIN III - LASKURAIN**  
**GONZALEZ - PASCUAL**

II III III III

**Galarza V - Apeztegia**  
**Berasaluze IX - Nalda III**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**



**TOLOSALDEA,**  
**LASKORAIN IKASTOLA,**  
**ZEURE AUKERA**



- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkizun ikastola

- **Batzilergoko eskeintza zabala duelako:**
- Zientzia eta Teknologia
- Naturaren eta Osasunaren Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

**Izena emateko epea:** apirilaren 23tik maiatzaren 4era bitartean  
Ikastetxeko idazkaritzan, Usabal Auzoa 26  
**Orduetgia:** 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 18:00  
Argibide gehiago: Tel.: 943 67 44 28 edo [tolosa@ikastola.net](mailto:tolosa@ikastola.net)

VILLABONA ▶ EUSKARA

# 66 eragilek jaso dute ziurtagiria

Gurea aretoan eskualdeko eragileek jaso zuten Kontseiluko eskutik

**ERREDAKZIOA**

66 izan ziren herenegun Villabonan ospaturiko ekitaldian Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten enpresa, saltoki eta entitateak. «Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateek eman dituzten urratsak, ematen ari direnak eta emango dituztenak dira, euskararen eguzkia pizten eta bizitzen duten argia», adierazi zuen Kontseiluko idazkari nagusia den Xabier Mendigurenek.

Urte urte gora egin du Bai Euskarari Ziurtagiriaren kopu-

ruak: Tolosaldean, 10 ziurtagiri lortu dira aurten. Ziurtagiriez gain, Akordioan parte hartzen duten herrien kopurua ere gora doa.

Ildo honetatik, Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarte berriaren sorrera aurrera doa. Osatu baino lehen, Kontseiluko ordezkariak Euskal Herriko hainbat eta hainbat eragileren ekarpenak jasotzen ari dira.

Kontseiluaz gain, ekitaldian eskualdeko euskalgintzaren ordezkaria, Jarraipen Batzordeko ordezkaria eta udalen bozeramailea elkartu ziren.



Gurea aretoan aurten Bai Euskarari Ziurtagiria jaso zuten eragile ezberdinetako kideak. ESTI EZEIZA

Eneritz Maizek, euskalgintzako ordezkariak, ziurtagiridunak zoriondu zituen, proiektu honen parte izateagatik: «Gero eta gehiago gara proiektu honetan lanean gabiltzanok eta guztion artean lortuko dugu».

**Eskualdean indartzen**

Honez gain, euskalgintzak egin duen ahalegina nabarmendu zuten, Aiztondon eta Alegialde-

an euskalgintzaren mahaiaik sortzeko egin den lana gogoratu. Izan ere, Tolosaldeko euskalgintza berrantolatu egin da eta lanean dihardu: Alegian, Bai Euskarari Akordioaren aurkezpenaz gain, eragile sindikalei ere egitasmo honen berri eman diete. Jarraipen Batzordeko Iñaki Azaldegik ere bat egin du euskalgintzarekin.

Villabonako euskara zinegotzia, instituzioen parte-hartzea-

ren garrantziaz aritu zen: «Tolosaldeko udalek gizarteak euskararen alde egin duen apustuarekin bat egin dute, euskararentzat denok baikara beharrezko».

Bukatzeke, «Kontseiluaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuet egiten ari zaren lanarengatik», adierazi zuen Mendigurenek. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere jaso zuten ziurtagiria.

ALEGIA ▶ AHT

# Herri kontsulta egin duten herrietako ordezkariak balantzea aurkeztu dute

Gaur 8, Bilbon izango den manifestazio nazionalerako deia egin zuten

**ERREDAKZIOA**

Atzo Alegiko udaletxean AHTren inguruan herri kontsultak egin dituzten herri eta kontzejuen ordezkari batzuk izan ziren, hauetan lortutako emaitzen balantzea egiteko eta apirilaren 28an egingo duten manifestazio nazionalerako deialdia egiteko asmoz.

Danel Etxeberria Itsasondoko zinegotzia, Imanol Artano Alegiko zinegotzia eta Jone Etxeberria AHT Gelditu! Elkar-

laneko kidea izan ziren. Egingandako Herri Kontsultetan jasotako emaitza onengatik eskerrak luzatu zizkieten herritarrei.

Herri kontsulten orain arteko balantzean kontsulta hauek egitearen arrazoiak gogoratu zituzten: «Ingurugiroan izango duen eragina izaugarria izango da eta nekazal eremuan ere kalteak sortuko ditu; herrien arteko komunikazioa baino, inkomunikazioa eragingo du, eta azkenik, informazioa ez emateaz gain, ezkutuan egin da».

«Ibarretxeren eta gobernudako Herri Kontsultetan jasotako emaitza nahi izan zuten, «komunikabideetan behin eta berri aldarrikatzen ari direlako elkarriketa eta herritarren hitza errespetatu egiten dela eta praktikan herri kontsultak baztertu egiten ditu».

**Hilaren 28an Bilbora**

Bestalde, animatu egin nahi dituzte beste herriak ere, herri kontsultak ere egin ditzaten.



Agerraldian hiru herri eta kontzejuen ordezkariak izan ziren. N. URBIZU

Herritarrei zuzendu zaizkie ere, hilaren 28an Bilbon egingo den manifestazio nazionalen parte hartzeko deialdia luzatu nahi izan diete, batez ere eta bereziki «herri kontsulta egin

duten herritarrei». Manifestazio honetan administrazioari exijituko zaio herri kontsultetan lortutakoek erakusten duten erabakia errespetatua izan dadila».

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK**

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da**

**HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

AIZKORA APUSTUA ▶

# Alkizalete I.a eta 'Urki' lehiatuko dira bihar Asteasun

Herriko pilotalekuan izango da asteasuarraren eta orendaindarraren arteko lehia, 18:00etatik aurrera; alde bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu mahai gainean



Ekzerrean Xabier Alkizalete asteasuarra Adunako entrenamendu lekuan. Eskubian, Jexux Mari Ormaetxea, Nerea alabarekin, Orendainen. A. IMAZ

## ASIER IMAZ

Bihar Asteasuko pilotalekuan aizkora apustua izango da 18:00etan herriko Xabier Alkizalete Alkizalete I.a eta Jexux Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarraren artean.

Bakoitzak 3.000 euro jokatu-ko ditu eta bete beharreko lanari dagokionez, 14 kanaerdi-ko nork azkarren moztea izan-

go da. Alkizalete I.ak sei enbor jarriko ditu plazan eta *Urki*-k berriz, zortzi. Aizkoran bien lehen apostua izango da gaurkoa, biak hasiberriak baitira aizkora munduan. Asteasuarra orain dela urtebete hasi zen eta orendaindarra goi mailan ibiltzen den segalaria izan arren, bost hilabete besterik ez daramatza prestaketetan. Hala eta guztiz ere, honen inguruan

biei galdetuta, herrian lehen ere jaietan-eta aizkoran ibiliak direla onartzen dute.

Entrenamenduetan gogor ari da Xabier Alkizalete. 23 urte ditu 7 hilabete ez dira igaro debuta egin zuenetik. Getxon 3. mailako txapelketan parte hartu zuen eta 15 partaidetarik zortzigarren postuan geratu zen. Apustuari begira berriz, «haseran ez zen nere asmo-

tan sartzen. Gu prestatzen ari ginen, baina apostua beste batzuren kontua izan zen. Haiek animatu ninduten eta aurrera» egin zuela dio asteasuarrak. Herriaren aurrean lehiatzeak urduri jarriko ote duen galdetuta, «berez nahiko urduria nahiz eta kezkatzen nau jende aurrean aritzeak. Urkik alde horretatik jendaurreko esperientzia haundiagoa du», dio. Erakusle moduan berriz, Anjel Arrospide leaburuarra izan du ondoan eta «oso gustura» dagoela berarekin aipatzen du Alkizalete I.ak.

Jexux Mari Ormaetxeak aposturako Iruntxiberrri dauka ondoan. «Beroaldi baten ondorioz irten zen apostua. Iruntxiberrri gogor egiten dit aldamentetik eta honek aurrera eta aurrera besterik ez duenez...». Bost hilabete daramatza prestatutzan eta gogotsu zegoen gaurko lehiarako. Nerea alaba, Iruntxiberrri eta herriko lagun bat ondoan zuela, Orendainen duen entrenamendu lekura gerturatu zen atzo, azken kolpe arin batzuk ematera.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sustapen lana.** Bai Euskarari Akordioaren sustapen kanpaina egiteko pertsona euskalduna behar da Leitzaldean. Gida baimena eta autoa, beharrezkoak. 2 hilabete lanaldi erdian. Administrazioko C maila. Curriculumua helbide honetara bidali apirilaren 24rako: Elbarren 1, leitzaldea@euskalnet.net.  
**Estetizista.** Tolosako ileapaindegi batetarako estetizista behar da. Deitu ondorengo telefono honetara: 607 90 25 58.  
**Zaintzailea.** Albizturren, 2 hour

zaintzeko pertsona behar da autoarekin. 662 01 92 62.  
**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

### SALGAI

**Autoa.** Volkswagen Passat VG Sincro, 1999 urtekoa. 178.000 km. 8.000 eurotan. 690 78 57 01.  
**Etxebizitza.** Alegin 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta igogailudun etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. 685 73 35 62.  
**Lur saila.** 3 hektareako mendiko lur saila Legorretan, karretera ondoan.

Deitu gaueko 20:00etatik aurrera: 605 71 47 84.

**Autoa.** Opel Frontera 2.2 DTI Limited salgai. 2001. urtekoa. 80.000 km. 12.000 euro. Interesatuak deitu 657 79 51 76 telefono zenbakira.  
**Furgoneta.** Furgoneta saltzen da lana egiteko aukerarekin. Interesatuak deitu ondorengo telefonora: 636 75 49 09.  
**Autoa.** Opel Corsa. 1996 urtekoa. Egoera oso onean. Interesatuak deitu 635 70 68 40 telefono zenbakira.

## TOLOSA ▶

### Liburu bat hartuz gero, piruleta bat opari liburutegian

Hilaren 23an, hau da, datorren astelehenean, Liburuaren Nazioarteko eguna dela eta Tolosako Udal Liburutegiko bazkideek liburu maillegu bakoitzeko piruleta bana jasoko dute.

## ELDUAIAN ▶

### Gaur jokatuko du finaleko bigarren partida Zeberioik

Patxi Zeberioik finaleko lehen partida galdu ondoren (30-40) frontoi motzean, gaur Baines Txapelketako finalaren azken partida jokatuko du Hernaniko Galarretan. Erremontisten ohiko neurrian, Zeberio II.a-Agirrezabala bikoteak, Uterga eta Urrutia 30 tantu azpitik utzi beharko dituzte txapela irabazteko.

## IBARRA ▶

### KZgunean nekazal giroa aztergai

Hilaren 27an, hau da ostiralean, Ibarra KZgunean Euskal Herriko Nekazal Mundua aztertuko dute. Mintegia 17:00etan hasiko da eta 19:00etara bitarte iraungo. Maiatzerako ere mintegiak antolatuta dituzte. Hurrengo hilaren 4ean, ardo azagutzari buruzko mintegia antolatuta dute. 11n berriz *Euskara Ziberespazioan*. Azken ikastaroa berriz ekainean egingo dute, etxetik ordenagailuz erosteketa nola egin azalduko dute.

## IBARRA ▶

### Izaskunera erromeria Bizi Nahi elkartetik

Bizi Nahi erretiratuen elkarterean 25. urtemuga dela eta, Izaskunera erromeria egingo dute urteroko legez. Maiatzaren 18an gora oinez igoko dira. Bertan hamaiketako eta toka lehiaketan parte hartuko dute. Meza ondoren bazkaria eta dantzaldia izango dira. Autobusa ere jarriko dutela jakinarazi dute elkartetik nahi duenarentzat. Izen emateko epea berriz, astelehenean zabalduko dute.

ARESO ▶ AZPIEGITURAK

# Elutsederreko obrak hasi dituzte

## Bizpahiru makina lanean hasi dira eta 20 hilabetetan amaituko dute

NAIARA GARZIA

Elutseder Industrialdea handitzeko obrak hasi dituzte. Dagoeneko bizpahiru makina lanean dabilta, eta oraingoz lurra mugitzen hasi dira.

Obrak lehenago hastekoak baziren ere, Gobernuo baimen baten zain egon dira eta honek atzeratu egin ditu. Obra Sukia enpresa gipuzkoarrak egingo du, azaroan enkantera atera ondoren bere eskaintza aukeratu baitzuen Aresoko Udalak.

Aresoko Elutseder Industrialdeko handitze obrak 20 hilabeteko iraupena izanen dute eta enpresa kontratatu zuenean orduan idazkaria zen Alfonso Araujok azaldu zuen bezala, «obraren atzerapenak enpre-

saren gain joanen dira». Modu honetan Aresoko Udalak arrisku guztiak saihestu nahi izan ditu.

### Kopuruak

Proiektuak 301.204.819 euroko kostua izanen duen arren (50.000.000 pezeta), Aresoko Udalak 560.240.963 euroko (93.000.000 pezeta) diru laguntza jasoko du, eta Sena enpresari P-1A izeneko industria-nabea saldu ondoren 1.575.000 euro eskuratuko ditu (261.450.000). Honetaz gain, Udala ere eraikitako lur eremu batzuekin geldituko da, P2A eta P2B izenekoekin, alegia. Sukiak, obraren ordaintan, P-1B, P-3 eta P-D1 lur eremuak eskuratuko ditu.



Elutseder Industrialdean, lanean. N. GARZIA

ARESO ▶ AZPIEGITURAK

# Obrak amaitzeko «2 aste inguru» falta direla azaldu du Mikel Baraibarrek

## Herriko zenbait lekutan zolua jartzea besterik ez zaie gelditzen

N. GARZIA

Herriko obrak amaitzeko «2 aste inguru» besterik ez direla falta adierazi du Mikel Baraibarrek, Aresoko alkateak. Azaroan lanean hasi zirenetik, elektrizitate eta telefonia sareak, uren hornikuntza eta gasaren bideraketa egin dituzte, eta bidenabarrean, zolua altxatu dutenez, hau ere moldatu egin dute. Dagoeneko ia zolua guztia erabat jarrita dago.

Azaroan hasi zirenetik 6 hilabete pasa dira, eta hasiera batean obrak lau hilabete eta er-



Azkeneko konponketak. N. GARZIA

diko iraupena izango zutela hitzartu bazuten ere, hauek atzeratu zitezkeela aurreikusi zuten. Alfonso Araujok, orduan Aresoko udaletxeko idazkaria zenak, «askotan obra bat hasi baino lehen alde zuzeneko delatza ezinezkoa» dela adierazi zuen.

Peruneko zubitik hasi eta Oillerearaino doan zatia erabat altxatu dute hilabete hauetan. Hori dela eta, bitarte honetan herritarrek bi semafororekin moldatu dira, konpontzen ari ziren zatietan txandaka pasatzeko.

LEITZA ▶ NATURA



## 2 kilotik gora pisatzen duen erremolatxa

N. Garzia ▶ Ofizian Juanitoren alorrean asteazkenean, alorrean lanean ari zirela, 2 kilotik gorako erremolatxa erraldoia bildu zuten. Ofizina barazki handiak biltzen dituzten lehenengo aldia ez dela azaldu dute. «Tarteka horre-

lakoak gertatu zaizkigu, baina hain handia den barazkirik ez dugu inoiz bildu». 2 kilotik gora pisatzen duen erremolatxak Ofizian etxe parean hiru egun egin ditu, eta bide batez, hainbat herritarrek hau ikusteko aukera izan dute. N. G.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako zeuk idatzi izeneko atalean sartu besterik ez duzu egin behar. Hori bai, zurekin harremanetan jarri nahi edo behar izanez gero, zure datuak sartzeko komenigarria da. ▶

### ERRETENGIBEL SALGAI

1.- Solana 4. zenbakiko behe solairuko bi lokal lote bakarrean, lehiaketa bidez.  
2.- Toriles Eraikuntzan behe solairuko lokala, enkante bidez.

**Informazioa:**  
ERRETENGIBEL,  
Plaza Zarra 10 behea.  
Tel.: 943670892  
Posta elektronikoa:  
erreten@tolosakoudala.net

### ARAMBURU

**Alokatzeko (Tolosa).**  
Pisua San Frantzisko kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa).**  
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren ibxia.  
**Salgai (Tolosa).**  
Pisua "La Estrella" eraikinean.  
**Salgai (Tolosa).** Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.  
**Salgai.** Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa).**  
Garajeak. Leidor azpian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

### KAZETARIAK (Erref.: 07-KAZB)

Berria egunkariak 3 kazetari behar ditu maiatzean eta ekainean aritzeko.

#### Eskaintzen da:

- Lanean segituan hastea.
- Prestakuntza espezifiko jasotzea.

#### Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea, edo kazetaritza lanetan esperientzia izatea.

#### Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea

Bidali curriculumak gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, apirilaren 27a baino lehen.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Bedaio.** Kultur Asteburuaren baitan, Ilorreta baserrira joango dira gazta nola egiten den ikusteko. Ardiari artilea nola moztzen dioten ikusiko dute ere. Ondoren taloak afalduko dituzte Artubi elkartean.

**Belauntza.** Kultur Etxeak Errioxako Badaran herriko hiru bodega ezagutzeko ibilaldia antolatu du. Prezioa: 25 euro, autobusa eta bazkaria barne. Izena emateko Belauntzako Kultur Etxean eta 943670020an.

**Tolosa.** Irlandar Festa Bonberenean 22:30ean.

**Tolosa.** Txirrin Txarran Eguna, Bizi Alai elizako aisialdi taldeen bilkura arratsaldez Kultur Etxean.

**Tolosa.** Laskorain Ikastolak, bere 40. urtemugako ekitaldien barruan, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia antolatu du Leidor aretoan 18:00etan.

**Tolosa.** Bizkaiko The Uski's boskote bizkaitarrak joko du Leidor aretoan 12:00etan Sabino Arana Fundazioak antolatutako IV. Bertso Paperen Lehiaketaren sari banaketan.

**Tolosa.** Kazkabarra aisialdi taldeak 25 urte bete ditu eta festa izango du gaur: 19:00etan triki-poteoa hasiko da plaza Berrian eta 21:30ean afaria izango da Ferialekuan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El ultimo rey de Escocia* thriller historikoa emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 20:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

**Goiko irrati**  
**(107.0 FM)**  
12:00. *korrera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Haurrak protagonista

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaurkoan bi umetxo dira Argazki Lehiaketako protagonistak: Mozambikeko neskatxa bat eta Anje Urruzola jaioberria**



**'ERROMERO ETA TOMILLO ARTEAN' ▶**

**Anje Urruzola (Tolosa).**

Mundura heldu berri den Anjek ez du ekarri ogi bat besapean, baina bai luma bat. Testutxo hau bidali du, behintzat. «Aste Santu honetan, ni jaio nintzen egunean, osaba Priorateko olibondo, almendro eta mahasti artean zebilen, erromeroa eta tomilloa usainduz, Levanteko haizea lagun zuela». Irabaziz gero, osabak oparia emango al dio?

**MOZAMBIKE ▶**

**Nagore Mendibil (Tolosa).**

Ederki azaldu dizkigu Nagore Mendibilek bera oporraldiaren nondik norakoak. Hauxe kontatu digu tolosarrak: «Argazki hau Ilha do Moçanbiquen (Mozambike) ateratakoa da. Han pasa ditugu 15 egun hegoaldeko iparraldera Mozambike gurutzatuz. Herri kolonial honetan zehazki turismoa mugitzen da eta haurrak egun osoan zehar eduki ditzakezu ondoan. Neskato honek pitxarra urez beteaz zeraman buru gainean, eta itsasora bota ondoren lurreko harri-binxar eta lokatzez garbitzen du etxera itzuli aurretik».



**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Sergio Ceberio.**  
Zorionak zure familia guztiaren partetik.



**URTE ASKOAN!**  
**Eñaut Gurrutxaga Etxeberria (Tolosa).** Gaur 5 urte. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tarte



**URTE ASKOAN**  
**Amona Maria (Bedaio).**  
Zorionak Eñaut eta Amaiurren partetik.